**Azalpen txostena, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako aurrekontu proiektua egin da emaitzak lortzera bideratutako jarraibideak oinarritzat hartuz.

Horrela, programak departamentuari atxikitako helburuetara egokitzen jarraitu da, eta adierazle nagusiak garatu dira.

**01- Programa - Zerbitzu Orokorrak**

Programa honek, izaera generikoa duenez gero, aurreko aurrekontuak zehaztutako irizpideak jarritzen ditu eta Departamentuari atxikitako helburuak betetzen laguntzen du.

**10. programa - Ingurumena**

Programa honek jasotzen ditu Ingurumen Zerbitzuak dituen izaera orokorreko jarduketa guztiak, baita eremu funtzionalei komunak zaizkienak ere, beste hainbeste aurrekontu programatan zehazten direnak. Barne hartzen ditu alderdi hauei dagozkien zuzkidurak: azterlanak eta irizpenak, bulegoko materiala, dietak, altzariak, telefonia, ekipamendu informatikoak, Interneteko ataria mantentzea, Departamentuaren komunikazioa, Europako proiektu berrien garapena eta jarraipena, eta abar.

Zuzendaritzaren premiak 2020koak baino zertxobait txikiagoak dira (-% 14), batez ere iaz amaieran aurreikusitako Europako proiekturen bat ez delako onartu.

**11. programa - Ekonomia zirkularra**

2021ko aurrekontuak foru arau honetako ekintza-programak betetzeari erantzuten dio: 6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena.

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

Se ha elaborado el proyecto de presupuestos del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, siguiendo las directrices que lo orientan a la obtención de resultados.

Se continúa adaptando los programas existentes a los objetivos asignados al departamento y se han desarrollado los indicadores principales.

**Programa 01 - Servicios Generales**

Este programa, dada su naturaleza genérica, sigue los criterios marcados en el presupuesto anterior, contribuyendo al cumplimiento de los objetivos asignados a este Departamento.

**Programa 10 - Medio Ambiente**

Este programa comprende todas las actuaciones de carácter general del Servicio de Medio Ambiente y las comunes a las áreas funcionales, que se concretan en otros tantos programas presupuestarios. Incluye las dotaciones correspondientes a estudios y dictámenes, material de oficina, dietas, mobiliario, telefonía, equipos informáticos, mantenimiento del portal-web, comunicación del Departamento y el desarrollo y seguimiento de nuevos proyectos europeos etc.

Las necesidades de la Dirección son algo inferiores con respecto a 2020 (-14%), debido, sobre todo, a que algún proyecto europeo previsto el año pasado al final no ha sido concedido.

**Programa 11 - Economía circular**

El presupuesto de 2021 da respuesta al cumplimiento de los programas de acción de la Norma Foral 6/2019, de 20 de marzo, por la que se aprueba el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2019-2030.

Aurrekontua 2020. urtekoaren antzekoa da.

II. kapituluan % 9,3ko murrizketa apal bat gertatu da, Gipuzkoako Ingurumen Esparruaren kontrol eta jarraipen epidemiologikoa esleituta dagoelako, eta VI. kapitulua pixka bat murriztu da VII. kapituluaren alde (azken hori % 30,5 handitu da), eta dirulaguntzen kontzeptu berriak sartu dira hainbat eragileren ekintzak babesteko gaikako bilketaren, berrerabilpenaren, birziklapenaren eta bioekonomiaren arloan.

El presupuesto es similar al del año 2020.

En el Capítulo II se produce una pequeña disminución del 9,3 % al estar ya adjudicado el control y seguimiento epidemiológico del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, y el capítulo VI se reduce un poco en favor del capítulo VII (aumentándose este último un 30,5%) introduciéndose nuevos conceptos de subvenciones para apoyar acciones de diversos agentes en materia de recogida selectiva, reutilización, reciclaje y bioeconomía.

**12. programa - Jasangarritasuna eta ingurumen hezkuntza nahiz sentsibilizazioa**

Oro har, aurrekontua kontinuista da (% 16 baino ez da murriztu), Tokiko Agenda 21ekin eta Agenda 2030ekin (GJH) lotutako analisiak egiten jarraitzeko, bai eta naturarekin lotzeko Gipuzkoako Naturaldia programa ere.

Hala ere, VII. kapitulua nabarmen murriztu da (% 30 baino gehiago), ingurumen dibulgazioko jardunaldietarako elkarteei zuzendutako dirulaguntzen lerroa desagertu egin baita.

**Programa 12 - Sostenibilidad y educación y sensibilización ambiental**

De manera general, el presupuesto es continuista (disminuye sólo un 16%), con objeto de seguir abordando los análisis relacionados con la Agenda 21 Local y la Agenda 2030 (ODS), así como el programa de Gipuzkoa Naturaldia, de conexión con la naturaleza.

No obstante, se reduce significativamente el Capítulo VII (más del 30%) dado que desaparece la línea de subvenciones destinada a las asociaciones para jornadas de divulgación ambiental.

**13. programa - Jasangarritasun energetikoa**

Programa hori apur bat areagotu da (+% 3).

II. kapituluari dagokionez, 2021ean kredituak murriztu egin dira (-% 16,7); izan ere, Gipuzkoako 2050erako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia egin da, eta, beraz, ez da aurreikusten behar adina azterketa osagarririk.

Hala ere, Gipuzkoako pobrezia energetikoaren prebentziorako behatokiaren zerbitzua mantenduko da; energia jasangarriaren lurralde mahaia dinamizatzeko ekintzak egingo dira; eta eskualdeko eta tokiko eragileen koordinazioa sustatuko da, eraginkortasun energetikoko eta energia berriztagarrietako proiektuak elkarrekin egiteko eta tokiko ekonomia bultzatzeko. Argitu programa garatzen jarraituko da,

**Programa 13 - Sostenibilidad energética**

Este programa presenta un pequeño incremento (+3%).

En lo que se refiere al Capítulo II, en 2021 se disminuyen los créditos (-16,7%) dado que ya ha sido elaborada la Estrategia de Sostenibilidad Energética de Gipuzkoa 2050, por lo que no se prevé que sean necesarios tantos estudios complementarios.

No obstante, se mantendrá el servicio del observatorio de prevención de la pobreza energética de Gipuzkoa, se realizarán diversas acciones de dinamización de la mesa territorial de energía sostenible y de coordinación con los agentes comarcales y locales para la elaboración conjunta de proyectos de eficiencia energética y energías renovables, e impulso de la economía local. También se continuará desarrollando el

zeinaren helburu espezifikoa baita etxeei eta merkatari txikiei aholkuak ematea energiaren inguruan. Energiaren inguruko informazio, sentsibilizazio eta prestakuntza programa orokorrak mantendu egingo dira (energiaren urteko jardunaldiak, azoka ibiltariak, lantegiak, ikastaroak, web baliabideak, eta abar).

EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea betetzeko, Foru Sektore Publikoaren Kudeaketa Energetikoaren Sistema Integrala mantentzen jarraituko da, inbentario eta monitorizazio ekintzak, ziurtapenak, auditoriak, azterlanak, energia jarduketen planak eta beste ekintza batzuk eginez.

Berdin mantendu da IV. kapitulua, eta % 11ko murrizketa izan du VI. kapituluak, nahiz eta eutsi egiten zaien proiektuak eta obrak egiteko eta energia berriztagarriak ezartzeko esperientzia pilotuen proiektu berezietarako partidei.

Gainera, VII. kapitulua bikoiztu egin da, gure lurraldean tokiko energia komunitateak sortzen laguntzeko.

**14. programa - Erresilientzia eta azpiegitura berdeak**

Programa hori nabarmen murriztu da (-% 23,3).

Murrizketa hori II. kapituluan kontzentratzen da. Kapitulu horrek ingurumen inpaktuen prebentzioarekin lotutako premiei erantzuten die, bai eta degradatutako eremuak leheneratzeko eta lurralde erresilientzia handiagoa izateko azpiegitura berdeen sare bat bultzatzeko azterlanarekin eta plangintzarekin ere, klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko estrategia gisa.

VI. kapituluak azpiegitura berdeen eta eremu degradatuen proiektuei eta obrei aurre egiten die, plangintzan ezarritako irizpideen arabera.

programa Argitu, específico para asesoría en energía en hogares y pequeño comercio. Se mantendrán los programas generales de información, sensibilización y formación en materia de energía (jornadas anuales energía, ferias itinerantes, talleres, cursos, recursos web, etc.).

Con el objeto de dar cumplimiento a la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la CAPV se continuará con el mantenimiento del Sistema Integral de Gestión Energética del Sector Público Foral, con acciones de inventario y monitorización, certificación, auditorías, estudios, planes de actuación energética y otras acciones.

El Capítulo IV se mantiene, y el VI sufre una disminución del 11% aunque se mantienen las partidas para la realización de proyectos y obras y para proyectos singulares de experiencias piloto de implantación de energías renovables.

Además, el Capítulo VII se incrementa en algo más del doble para apoyar la creación de comunidades energéticas locales en nuestro territorio.

**Programa 14 - Resiliencia e Infraestructuras Verdes**

Este programa se disminuye de manera importante (-23,3%).

Esta disminución se concentra en el Capítulo II, que atiende necesidades relacionadas con la prevención de los impactos ambientales, así como con el estudio y planificación de restauración de áreas degradadas y de impulso de una red de infraestructuras verdes para una mayor resiliencia territorial como estrategia de adaptación a los efectos del cambio climático.

El Capítulo VI que hace frente a proyectos y obras de infraestructuras verdes y áreas degradadas en función de los criterios establecidos en la planificación, se mantiene igual.

**15. programa - Klima-aldaketa**

Programa horren gehikuntza % 40,5ekoa da, eta zuzenean erantzuten dio honi: 18/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 onesten duena.

Hala ere, II. kapituluak % 32,2 egin du behera; izan ere, behin Estrategia definituta, azterlan osagarrien premia txikiagoa da.

IV. kapitulua nabarmen handitu da (% 25 baino gehiago), Klima Aldaketaren Gipuzkoako Behatokiari ekarpenak egiteko, eta fundazioak izapidetzen dituen «enpresa erronkak» sariak emateko.

VI. kapitulua ere nabarmen handitu da (% 60 baino gehiago), Naturklimaren eraikina eraikitzen hasteko, zeina Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioaren egoitza izango baita.

**16. programa - Hondartzen eta kostaldearen kudeaketa integrala**

Itsasertzeko hondartzetara bideratutako aurrekontua ia berdin mantendu da (% 3 murriztu da).

II. kapitulua mantendu egiten da hondartzen kudeaketa integratuarekin zerikusia duten beharrezko jarduerei ekin ahal izateko (garbiketa eta zaintza, inpaktuen sentsibilizazioa eta prebentzioa, web kameren mantentze lanak eta bideometriako foru sarea).

Bestetik, IV. kapitulua pixka bat murriztu da; izan ere, kendu egin da AZTIrekiko lankidetza, itsasertzeko hondartzen monitorizazioan ikerketa eta berrikuntza egiteko.

**20. programa - Azpiegitura hidraulikoak**

200 programaren 2021eko aurrekontuaren helburua da edateko uraren hornidura eta hondakin uren saneamendu sistemak gauzatzen aurrera egitea.

**Programa 15 - Cambio Climático**

Este programa, que se incrementa el 40,5%, da respuesta directa a la acción contenida en el Decreto Foral 18/2018, de 29 de mayo, por el que se aprueba la Estrategia Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático 2050.

No obstante, el Capítulo II disminuye un 32,2%, dado que una vez definida la Estrategia es menor la necesidad de estudios complementarios.

El Capítulo IV sufre un incremento importante (más del 25%) dentro de la aportación a la Fundación de Cambio Climático, debido al mantenimiento del Observatorio del Cambio Climático de Gipuzkoa y los premios “Retos empresariales” que tramita también la Fundación.

También el Capítulo VI se incrementa notablemente (más del 60%) con el objeto de acometer la construcción del edificio de Naturklima, que será sede de la Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa.

**Programa 16 - Gestión integral de playas y litoral**

El presupuesto dedicado a las playas-litoral se mantiene prácticamente igual (disminuye un 3%).

El Capítulo II se mantiene para poder acometer las actuaciones necesarias que tienen que ver con la gestión integrada de las playas (limpieza y vigilancia, sensibilización y prevención de impactos, mantenimiento cámaras web y red foral de videometría).

Por otra, el Capítulo IV desciende ligeramente dado que se elimina la colaboración con AZTI para la investigación e innovación en monitorización de las playas-litoral.

**Programa 20 - Infraestructuras Hidráulicas**

El presupuesto 2021 del programa 200 está enfocado a avanzar en la ejecución de los sistemas de abastecimiento de agua potable y de saneamiento de aguas residuales.

200 programaren guztizko gastu garbia handitu egin da 2020ko aurrekontuarekin alderatuta, ura kudeatzen duten erakundeekin hitzartutako obrak gauzatzeko konpromisoak jasotzeko. Hau da, azpiegitura hidraulikoen proiektuak idazteko eta hitzarmenen bidez konprometitutako obrak gauzatzeko ildo nagusiei eusten zaie. Era berean, oraindik erantzuten zaie Zuzendaritzak ibilgailuen eta ekipamendu informatikoen hornidura arloan dituen beharrei, VI. kapituluaren kargura, baita gastu arrunten beharrei ere, II. kapituluaren kargura.

El gasto neto total del programa 200 se incrementa con respecto al presupuesto de 2020 para dar cabida a los compromisos de ejecución de las obras conveniadas con los entes gestores del agua. Es decir, se siguen manteniendo las líneas principales de redacción de proyectos de Infraestructuras Hidráulicas y la ejecución de las obras comprometidas mediante convenios. Del mismo modo, se sigue dando cobertura a las necesidades de la Dirección en materia de suministros de vehículos y de equipos informáticos con cargo al capítulo VI, así como de los gastos corrientes con cargo al capítulo II.

Adierazitakoaren arabera, handitu egin da obrak egiteko partiden zuzkidura, eta horiek Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin, ura Uraren Euskal Agentziarekin, Añarbeko Uren Mankomunitatearekin eta Txingudiko Uren Mankomunitatearekin batera finantzatzea aurreikusi da.

Según lo indicado, se produce un incremento en la dotación de las partidas destinadas a la ejecución de obras cuya financiación se prevé realizar de forma conjunta con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, Agencia Vasca del Agua URA, Mancomunidad de Aguas del Añarbe, y Mancomunidad de Aguas del Txingudi.

Obretara bideratutako aurrekontu gehikuntza horren zati bat konpentsatzeko, beste partida batzuetako zenbatekoak murriztu egin dira. Murrizketa horiek programaren gainerako partidei eragiten diete, zehazki, gastu arruntei, proiektuak idazteari, tresneriari, ibilgailuei eta ekipo informatikoei. Murrizketa horiek programaren gainerako partidei eragiten diete, zehazki, gastu arruntei, proiektuak idazteari, tresneriari, ibilgailuei eta ekipo informatikoei.

Para compensar parcialmente el citado incremento presupuestario destinado a obras, se han disminuido los importes de otras partidas. Estos recortes afectan al resto de partidas del programa, en concreto, a los gastos corrientes, redacción de proyectos, utillaje, vehículos y equipos informáticos. La reducción aplicada está en la línea de las directrices dictadas para la elaboración del presupuesto, y en algunos casos se han aplicado porcentajes superiores.

**21. Programa - Ur baliabideak eta uraren kalitatea**

**Programa 21 - Recursos y calidad del agua**

Funtsezko bi helburu garatzen ditu departamentu honen jarduketa operatiboaren barruan: batetik, lur gaineko eta lurpeko baliabide hidraulikoen planifikazioa, kontrola eta ebaluazioa; eta, bestetik, Gipuzkoako ibai, estuario eta akuiferoen uraren kalitatea kontrolatzea.

Desarrolla dos objetivos fundamentales dentro de la actuación operativa de este Departamento como son, por un lado, la planificación, control y evaluación de los recursos hidráulicos y control de la calidad del agua del Territorio y, por otro, el impulso de la recuperación morfológica y ambiental de nuestros ecosistemas acuáticos.

Programa honek aurreko urteko aurrekontuaren ildoa mantentzen du, eta ez dago alde aipagarririk.

Este programa mantiene la línea del presupuesto del año anterior, sin que existan diferencias reseñables.

210 programaren guztizko gastu garbia % 2 murriztu da 2020koarekin alderatuta. Hori, alde batetik, langileria gastuaren partidak (I.

El gasto neto total del programa 210 disminuye un 2 % respecto al del 2020, ello es el resultado, por una parte, de mantener

kapitulua) eta II. kapitulukoak (aforalekuen sarea mantentzeari, kontserbatzeari eta konpontzeari buruzkoak, COVIDaren aurrean funtsezko zerbitzutzat hartzen baitira EAEko Uholdeei Aurre Egiteko Sarearen barruan egoteagatik) finko mantentzearen emaitza da, Erakusketa eta Lehiaketen partida izan ezik –% 7ko murrizketa izan baitu– eta, bestalde, programaren gainerako partidei % 7ko jaitsiera hori bera aplikatzearen emaitza, zehazki honako hauei: *Aforalekuak, zundaketak eta hobekuntza morfologikoa, baliabideen eta kalitatearen proiektua (baliabideen azterketak), Leitzaran ibaiko sedimentuen garraioaren jarraipena eta tresneria*. Horiek guztiak VI. kapitulukoak dira.

fijas las partidas del gasto de personal (Capítulo I) y las del Capítulo II, relativas al mantenimiento, conservación y reparación de la red de estaciones de aforos, consideradas como servicios esenciales COVID, por formar parte de la Red da Alerta de Inundaciones de la CAPV, excepto la Partida de Exposiciones y Certámenes que experimenta un descenso del 7 % y, por otra parte, de aplicar este mismo descenso del 7 % al resto de las partidas del Programa, que son las siguientes: *Estaciones de aforo, sondeos y mejora morfológica, Proyecto de Recursos y Calidad (Estudios de recursos), Seguimiento transporte sedimentos Río Leitzaran y Utillaje,* todas ellas pertenecientes al Capítulo VI.

**22 programa - Ibaiak leheneratzea**

Programa horren helburua hau da: bultza egitea uretako ekosistemen morfologia eta ingurumen berreskurapenari, eta zehazki, Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidarian jasotako ekintzei.

Programa honetako partida guztietan aurrekontu murrizketak daude, aurrekontua egiteko emandako jarraibideen ildotik, eta kasu batzuetan ehuneko handiagoak aplikatu dira.

II. kapituluan dibulgazio ekitaldietarako eta azterlan espezifikoak egiteko partidak aurreikusten dira.

VI. kapitulua proiektuak idazteari, obrak egikaritzeari eta obra horiek gauzatzeko behar diren lurrak desjabetzeari buruzkoa da. Aurtengo ekitaldi honetan aurreikusitako ekintzek Europaren % 50eko kofinantzaketa eduki ahal izango dute, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren bidez (EGEF).

**Programa 22 - Restauración fluvial**

El objetivo de este programa es dar impulso a la recuperación morfológica y ambiental de los ecosistemas acuáticos, y en concreto, a las acciones contempladas en el Plan Director de Permeabilización de Obstáculos.

Todas las partidas de este programa vienen afectadas por disminuciones presupuestarias en la línea de las directrices dictadas para la elaboración del presupuesto, y en algunos casos se han aplicado porcentajes superiores.

En el capítulo II se prevén partidas para actos de divulgación y para la elaboración de estudios específicos.

El capítulo VI está destinado a la redacción de proyectos, la ejecución de obras y la expropiación de los terrenos necesarios para poder materializar dichas obras. Las acciones previstas en esta anualidad podrán ser objeto de cofinanciación europea al 50 % a través de fondos FEDER.

**23. programa - Aforalekuak berritzea**

2020an sortutako programa da, eta lurraldeko ur emaria neurtzeko estazioak berritzea du helburu. Sare horren bitartez, Gipuzkoako ibaien emariak kontrolatzen dira, eta hainbat datu ere erregistratzen dira, hala nola uren kalitateari buruzkoak eta plubiometriari buruzkoak. Aforaleku batzuk orain dela 30 urte baino gehiago eraiki ziren, eta

**Programa 23 - Renovación Estaciones de Aforos.**

Se trata de un programa creado en 2020 cuya finalidad es la renovación de las Estaciones de Aforo del Territorio. Mediante esta Red se controlan los caudales circulantes por los ríos de Gipuzkoa, y también se registran datos de calidad de aguas y de pluviometría. Algunas estaciones de aforo fueron construidas hace más de 30 años, y exigen una revisión

berrikuspen integral bat eskatzen dute, honelako alderdiak jasoko dituena: ekipamenduak berritzea, azpiegiturak zaharberritzea, ibilgailu sarbidearen behar berriak, eta abar.

Programa honetako partida guztietan aurrekontu murrizketak daude, aurrekontua egiteko emandako jarraibideen ildotik, eta kasu batzuetan ehuneko handiagoak aplikatu dira. Kasu batzuetan murrizketa handiagoak aplikatu dira 200 programaren aurrekontu gehikuntza konpentsatzeko.

II. kapituluan dibulgazio ekitaldietarako eta azterlan espezifikoak egiteko partidak aurreikusten dira.

VI. kapituluak alderdi hauek jasotzen ditu: egin beharreko obrak definitzeko behar diren proiektuak idaztea, obra horiek egitea, eta obra horiek egin ahal izateko behar diren lursailak desjabetzea.

integral que contemple aspectos tales como la renovación de equipos, rehabilitación de infraestructuras, nuevas necesidades de acceso rodado, etc.

Todas las partidas de este programa vienen afectadas por disminuciones presupuestarias en la línea de las directrices dictadas para la elaboración del presupuesto. En algunos casos se han aplicado recortes superiores a fin de compensar el incremento presupuestario del programa 200.

En el capítulo II se prevén partidas para actos de divulgación y para la elaboración de estudios específicos.

El capítulo VI contempla la redacción de los proyectos necesarios para definir las obras a ejecutar, la ejecución de dichas obras, y la expropiación de los terrenos necesarios para poder materializarlas.